

GU DA-ZARATAK

Gure aldizkaria illean bein baiño ez da agertzen eta orregaitik albisteak zar egiten dira. Orain, esaterako, guda-zarata ikaragarriak dira barria, baiña gaur, zezeillaren 6n. egunean idazten dodan au, irakurleen eskuetara jorrai- llean elduko da. Ordurako guda-trumoiak isilduta egongo dirala uste dogu.

Nortzuk gura dabe guda?

Gogoan daukagu oraindiño Torre Bikoitzak lurreratu ebezan egun larria, larria batez be, Ipar-Ameriketan bizi diranentzat eta geiago il ziran guztien etxekoentzat.

Ortik sortu da izu edo bildur-giroa bertan batez be, eta mundu osoan be bai... Bush'ek artu eban ardurea izu ori zabaltzen dabenak billatzeko eta orretarako egin eban Afganistan'eko guda. Ez eban lortu Bin Laden erruduna arrapatzea.

Gaur areriorik aundienen artean aurkitzen dana Irak'eko agintaria da. Gaurko mundu osoak daki ango agintaria Hussein diktadore bildurgarria dana eta jentetza osoak ilteko izkilluak daukazana

Orregaitik eskatu dautsoe Laterri Alkartuak edo ONU'k izkillu orreik kendu dauzala baiezta dagiala. Gai-ñera aztertzaileak bialdu dabez laterri aretara olako izki-llurik dagoan ikusteko. Ez dabez aurkitu baiña zalantzak ez dira kendu.

Bush dogu ainbat lasterren Irak'en aurka guda astea nai dauana eta gertakuntza aundiak egin dauz orretarako. Bere alde dago, batez be, Ingalterra eta España'ko Aznar be orreikaz alkartzen da.

Nortzuk ez dabe gura gudarik?

Jakiña, Irak'ekoak eurak dira lenengo gudarik naiz ez izatean, baiña sortzen ba'da gertu dago gogor erantzuteko

Gudaren aurka argien agertzen diranak Frantzia ta Ale- mania'ko agintariak dira eta oneik daukez euren alde munduko errialderik geienak eta Laterri Batuetan bertan naiz Ingalterra'n be erritar asko eta asko.

España'ko parlamentuan arazo au aztertu danean, Aznar bakarrik agertu da guda egitearen alde, beste guz- tiak aurka

Ikusten da ba, munduak bakea nai dauala, baiña kontu- ratzen da mundu ori zelako arriskua dan olako gizon bat Hussein'en antzeko gizon bat munduarentzat eta zelako kalte mkingarriask egin leikezan bere izkillu orreikaz, jen- tetza ilteko diran izkillu orreikaz?

Adibide lez, azkenengo guda nagusian a Alemania'n jazo zana artu dagigun: Hitler' eri larregi itzi jakonelako, zelako ondoren negargarriak sortu ziran!

Guk ez dogu gura gudarik!

Izan be gudaren kalteak ikaragarriak dira, guztientzat eta batez be erri errubakoarentzat.

Baiña bide ziurak eta sendoak artu bear dira Hussein agintari gogorak aurrera egin ez dagian. Zeintzuk? Zer egin bera kentzeko edo alboratzeko, erriari kalterik egin barik.? Orixe da arazo nagusia gure egun larri onetan. Izango da bideren bat!

AGUR

Barriro be erail dabe Euskadi'ren lagun ez dan gizarte-zale edo sozialista bat eta ezin itzi esan barik erailketa au txartzat artzen dogula eta beronen etxe-koakaz maitasunez alkartzen garala.

Eta ori orrelan argi itzi-ondoren, gero entzundako berba batzui begira egin dagigun pentsalditxu bat.

Erailla izan dana ez da izan, antza dagoanez kristi-ñau fededuna eta etxeokak eleizkizunik ez egitea era- bagi dabe eta orretarako eskubide osoa dauke. Egin bear dabena egin dabe eta geuk be eskubide bardiña daukagu euskaldunak eta fededunak izateko.

Erri-giroko illeta egin da ba illerrian, edo, argiago esateko, sendi-gorokoa. Orregaitik esan dabe, eta ondo esana da, ez dabela gura ezelako ordezkariarik eginki- zun orretara joaterik. Baiña, ori esan-ondoren, beste au gaiñeratu dabe: Ez dabela nai Lizarra'ko ituna izenpe-

tu dauanik edo Eusko Jaurlaritzakorik joatea. Ez dakit gaiñeratze au zertarako dan, guztiai ezetza emon ezke- ro, azkenengo onei be emona zan. Nai dabena erritar batzuk euren alkartasunetik alboratzea izan da.

Zer esango ete eben alderantziz izan ba'litz? Erailla abertzalea izan eta sozilarik ez dabela nai esan ba'lebe? Ori endakeria edo norakeria dala esango eben, zalantza barik. Eta errazoi osoagaz-. Legezko aginta- riak diranak alboratzea ez da bakerako bidea, ez da Euskalerrriaren etorkizuna eratze bidea.

Amaitzeko, barriro erailketa txartzat artu ondoren, sendiari geure alkartasuna eskini eta samintasunean leguntzen dautsagu eta argi itzi nai dogu guztiontzat bakea nai dogula eta bear dogula, norkeri guztiak albo- ratuta, errien eskubide guztiak zaintzen dirala.

Olazar'tar Martin'ek